


ANELKAR ELKARTEA

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Ikasgaia: Gizarte Ongizateko Erakundeen Kudeaketa eta Antolakuntza

Irakaslea: Iزارo Gorostidi

Ikasturtea: 2018-2019

Ikasleak: Malen Merino, Itziar Otamendi, Mikel Arregi eta Ane Albisu

AURKIBIDEA

1. Oinarrizko prozesuak
 - 1.1. planifikazioa
 - 1.2. Interlokuzioa
 - 1.3. Ebaluazioa
2. Baliabideekin lotura duten prozesuak
 - 2.1. Giza baliabideen kudeaketa
 - 2.2. Kudeaketa ekonomiko finantzieroa
 - 2.3. Informazio kudeaketa
 - 2.4. Baliabide materialen kudeaketa
3. Prozesu berriak
 - 3.1. Harremanen kudeaketa
 - 3.2. Egituraren kudeaketa
 - 3.3. Ikasketa kudeaketa

Anelkar elkarte erlijio talde eta Euskal Herritik kanpo ibilitako jendearen artean sortu zen Antzuolan, bere laguntza gehienbat Kongo, Sahara eta bidezko merkataritzara mugatzen delarik gehienbat. Jarraian elkarte honek bere kudeaketaren prozesua nola gauzatzen duen aztertu eta azalduko dugu.

1. Oinarrizko prozesuak

1.1. Planifikazioa

Planifikazioa prozesuaren urrats garrantzitsua da, izan ere, elkarteak helburu batzuk izango ditu, eta prozesu hori aurrera eramateko ze erabaki hartu garrantzitsua da; hau da, planifikazioa egitea. Anelkar elkarteak elkarlana sustatzea du helburu, eta egoera ekonomiko zein beharren arabera moldatzen dira helburu hori lortzeko. Izan ere, helburuak finkatzerako garaian kontuan hartu beharko da egoera ekonomikoa, honek erabat baldintzatzen baitu helburu horren lorpena. Horrela, diru bilketarako urteko plangintza bat dute, eta momentuko beharrei erantzuteko diru edo produktu bilketak egin ohi dituzte.

Epeari dagokionez bi esku hartze ezberdin egiten dituzte gehienbat: alde batetik epe luzerakoak eta bestetik, epe motzekoak edo koiunturari erantzunak ematekoak. Epe luzeko erantzun bat Kongoko herrixkan ura jartzea izango litzateke, eta koiunturarekiko erantzuna Saharako errefuxiatuen kanpamendura laguntza humanitarioa bidaltzea, adibideak jartzearen.

Esan beharra dago epe eta helburu zehatzak finkatzea zaila izan ohi dela, taldea oso anitza delarik, ideia ezberdinak atera ohi direlako. Hala ere erabaki ezberdinak hartzen dituzte denen artean eta orokorrean konpromezu komun batzuk daudela esan dezakegu; besteak beste, bidezko merkataritza, Sahara bezalako herrien askapenean edo biziraupenean laguntzeko giza baliabideak zein materialak jartzea (ahalmen eta beharren arabera betiere), eta bestelako lekuetan, besteak beste Kongo, behar humanitarioei erantzuna ematea.

Teknikei dagokienez, diagnosia egiteko AMIA teknika erabiltzen dute elkarteko kideek. Horrela, haiek gauzatuko duten esku hartzearen indargune eta ahulguneak identifikatzen dituzte lehenik barnera begira, eta kanpora begira, bestalde, aukera eta mehatxuak. Horrela,

egindakoarekin jasotako esperientzia eta ikuspuntu ezberdinak batzen burutzen dute planifikazioaren fase hau.

Erabakiak hartzea funtsezko atala da elkarte batean, eta Anelkar elkartean asanblada bidez hartzen dira erabakiak, ahal den era horizontal eta demokratikoenean. Gainera taldea oso handia ez izateak erabakiak hartzeko prozesu hori asko errazten du.

Helburuei dagokionez, helburu nagusia, herrialde pobretuekin kooperatzea da eta hau Antzuolarekin harremana duten pertsonen bidez gauzatzen da. Horrez gain, herrian justizia sozialarekin lotura duten gaien inguruko sentsibilizazioa sortzea ere bilatzen da.

Bestalde, aurretik aipatu ditugun bi helburu nagusi hauetaz gain, beste hainbat helburu ere baditu Anelkarrek, hala nola, herrialde pobretuetan lanean ari diren Antzuolatarrei laguntzea aurrera eramaten ari diren proiektuetan, beharrezko dirua lortuz eta Antzuolako herria proiektu hauen partaide eginez.

1.2. Interlokuzioa

Planifikazioa oinarrizkoa izanik, interlokuzioak ere garrantzi handia duela esan beharra dago. Horrela, beraz, elkartearen interlokutore izatea koordinazioa gure gain hartzea izango litzateke, eta koordinazio hau barnera begira edo kanpora begira ematen da.

Barne koordinazioari dagokionez, elkarteko kide direnak asanblada horizontal eta demokratiko bidez funtzionatzen dute. Parte hartzailea da, bertako kide diren denek parte hartzen dutelarik ez soilik erabakietan, baita koordinazio eta antolaketan ere.

Bestalde, kanpora begira, inguruarekiko elkarrekintza aipatuko genuke. Kanpoko elkarrekintza hau bitan banatuko genuke, azken finean Anelkarrek Antzuolako herritarrekin gain, beste herrialde batzuekin ere elkarrekintzan diharduelako:

-Herritarrekin duen harremana gertukoa da eta bilera ireki bidez eta euren helburuak lortzeko herri mailako ekintza ezberdinen bidez burutzen dute. Herriarekin beraz harreman zuzena dute, eta gainera herriko beste ekintza batzuetan parte hartzen dutenez taldeko kide gehienek, herriko errealitatearen ikuspegi nahiko sakona dute.

-Esku hartzen duten herrialdeekiko harremana berriz kontaktuko pertsona batekin burutzen dute. Taldeko kide ezberdinak toki ezberdinetara joateko konpromisoa hartzen dute euren oporrak gehienetan errealitate horren ezagutzara bideratuz era boluntarioan. Pertsona horren bitartez egiten da informazioaren trasbasea, esku hartuko den eremuko errealitatea zuzenki ezagutzuz.

Horrela, komunikazioa funtsezkoa da elkartean; bai Antzuolako herritarrekin, gainontzeko herrialdeekin eta elkarte barneko kideekin. Elkartearen jarduna talde lanean eta kooperazioan oinarritzen denez, talde lan honi garrantzi handia ematen zaio. Elkarteko kide direnek eta herritarrek argi dute taldean bildu behar direla ahalik eta emaitza eraginkorrenak lortu ahal izateko, hau da, elkarrekin lan eginez, taldean lan eginez, emaitza onak lor ditzaketela. Gainera, taldean elkarrekintza afektiboak ematen direlarik, arlo sozioemozionala ere lantzen da eta garrantzia ematen zaio, garrantzi handia ematen zaiolarik elkarteko kideak gustura sentitzeari edota erabakiak hartzeko prozesua parte hartzailea izateari, besteak beste, honen bidez talde lana sustatuz.

1.3.Ebaluazioa

Ebaluazio konstantea dela esango genuke, esku hartzen den lekuarekin harreman zuzena baitago eta horrenbestez, etengabeko feedbacka dago. Modu honetan, ebaluazioa plana hasi baino lehen, bitartean eta bukaeran eginez, ezustekoak ekiditea lortzen da.

Taldea berriz astero biltzen da, eta oro har, bideratutako esku hartzeek hitz egiten da, nola hobetu edo zer mantendu erabakitzeko batetik, eta hasieran finkatzen diren helburuak nola doazen ikusteko, bestetik.

Barne ebaluazioa ematen da, taldeko kideek egiten baitute ebaluazio hau. Aurretik aipatu bezala epeka biltzen doaz eta heuren ikusten dute ea helburuak betetzen doazen eta nola doan jarduna.

Ebaluazio parte hartzailea izango litzateke, ebaluazioaren asmoa ikastea baita etorkizun batean haien jarduna hobetzeko. Ebaluatzailearen jarrera ez da objetiboa, konfidantzari

garrantzia ematen diote eta hurbiltasuna lehenesten da. Ebaluatzeko metodoa kualitatiboa da, eta aldika batzen dira ebaluazio hau burutzeko. Azkenik, ebaluazioaren erabilera elkartekoek hartuko duten arren, gehienbat haien ekintzen hartzaileentzat izango da, haiengan onura mantendu edo sustatzeko asmoz.

2. Baliabideekin lotura duten prozesuak

2.1. Giza baliabideen kudeaketa

XXI. mendean giza baliabideen kudeaketaren inguruko ideia eta proposamen berriekin bat egiten du Anelkar elkarteko giza baliabideen kudeaketak; izan ere, horizontala eta demokratikoa da, zuzendari eta azpialderik gabea.

Anelkarren aritzeko ez da formakuntza espezifikorik behar; arestian esan dugun legez, herri mugimenduan aritutako jendeak hartzen baitu parte eta elkartea euren esperientzian eta auto-formakuntzan oinarrituz ateratzen dute aurrera. Beraz, esan genezake bolondresekin funtzionatzen dutela, talde egonkortu bat dagoelarik, eta orokorrean herrian euren proposamenei ongi erantzuten die.

Antzuola bezalako herri txiki batean sortua izanik, herrian elkartearrekiko atxikipena ona da, denek ezagutzen baitute elkar, eta oro har, beti dago laguntzeko prest dagoen jendea. Bolondres berriak erakartzeko, talde egonkortuak ekintza ezberdinak egiten ditu urte osoan zehar, beren proiektuekin lotura dutenak; eta aldi berean, proiektuetan parte hartzen dutenak ingurukoengandik konbentzituak izan ohi dira

2.2. Kudeaketa ekonomiko finantzieroa

Taldea esan bezala txikia da eta dena asanblada bidez burutzen da. Diruzain bat dago taldearen baitan, baina denengan dago diruaren beharra asetzeko edota honekiko jakintza bat izateko ardura. Lehenago esan bezala, ahalmen eta beharren arabera lan egiten dute, eta horrenbestez, euren gaitasunak zeintzuk diren eta zein baliabide material dituzten jakitea ezinbestekoa da.

Ondorioz, esan dezakegu nahiz eta diruzain papera duenak ardura handiagoa hartzen duen talde motor barruan, taldean horizontalki hartzen dira kudeaketari dagozkion erabakiak; hots, denen artean erabakitzen dela zenbat eta zertarako gastatu, edota zer egin daitekeen dirua lortzeko.

2.3. Informazio kudeaketa

Hasiera batean apaiz misionero batzuk herrialde ezberdinetako kideekin erlazioa sortu zuten, eta denborarekin, elkar harreman bat egin zuten harreman zuzen bat mantentzeko helburuarekin. Sorrera halakoa izan zen, eta beraz hasiera batean informazio gehiengoa apaiz misionero horiek zeukaten, heuren baitzuten harremana. Ondoren, ordea, herritar batzuk erreleboa hartuz joan dira eta hauek harreman hori mantentzen dutenez, informazioa jasotzen dute. Orokorrean elkarteko kide denak dira barne zein kanpo informazioaren jabe, informazioa jasotzen duten pertsonak asanbladan helarazten baitute beste kideengana.

Taldeko kide batzuk udaran gehienbat herrialde ezberdinetara joaten dira, eta beraz esan genezake taldekide hauek errealitate horiekiko jakintza handia dutela, haien esperientzian oinarritutako jakintza baitute. Hala ere, hauek bueltatzerakoan informazio hau gainontzeko kideei pasatzen zaie, egoera ezberdinen berri emanez. Bestalde, aurretik esan bezala informazio hau asanbladetan helarazten duten arren, bertara gerturatu ezin direnei posta elektronikoz bidaltzen zaie, azken finean garrantzitsua baita informazioa denei heltzea, informazioa boterea baita.

Kanpo informazioari dagokionez, datuak esku hartzean barnean egon den pertsonak kudeatzen ditu. Honek esku hartu behar duten gaiaren inguruko informazio premiak identifikatzen dituzte lehenik (ze informazio behar duten), ondoren informazio hori lortzeko arlo horretan dauden iturri ezberdinak identifikatuz. Horrela, bigarren mailako datuak edo datu landuak erabiltzen dituzte. Gainera, proiektu bat gauzatzean, honi buruzko informazioa biltzen dute eta Antzuolako herriari aurkezten die, eta proiektuan laguntzen duten guztiei, bildutako diru guztia, beharrezko lurraldera iristen dela ziurtatzen die.

2.4. Baliabide materialen kudeaketa

Elkartek lortzen duen material eta diru dena elkartasunez lortzen du, herritar bolondresen inplikazioarekin. Oro har helburuak finkatu dituztenetan herriak erantzun egin du, hau da; x elikagai bidali behar baziren hegazkinean zegoen leku dena aprobetxatzeko herritarrak erantzun egin diote beharrari eta ahal zen neurrian dena bete izan dute helburua elkartekoak x horretara helduz. Horregatik kudeaketa egokia dela esango genuke, finkatutako helburuak bete izan dituztelako euren aurreikuspenak betetz, eta ondorioz “beharrezkoa” zen laguntza hori emanaz.

3. Prozesu berriak

3.1. Harremanen kudeaketa

Anelkar elkarteko harremanei dagokionez, hau da, barneko harremanei, herriarekin lotura handia duen elkartea da, hau herritarrez osatuta baitago, beraz, harremanen sare oso indartsua, anitza eta osatua dela esango genuke. Bertan ekintza gehienak herritarrekin elkarlanean eta elkartasunez burutzen dituzte, eta ondorioz parte hartzea etengabekoa da baita taldekideen eta herritarren arteko interakzioa.

Bestalde, kanpora begira, hau da, Anelkarrekoek gainontzeko herrialdeekin (Sahara edo Kongo besteak beste) dituzten harremanei begira, harreman hauek hain estukoak ez diren arren azken finean harreman ona dutela esan genezake.

Esku-hartze parte hartzailea egoeraren araberakoa da. Hau da, adibidez baliabide material edo finantzieroak bildu behar direnean, hauek nola bildu erabakitze arduraren osoa elkartek hartzen du, honek erabakitzen du. Bestalde, adibidez Saharan proiektu edo esku hartze bat gauzatu nahi badute, bertako biztanleek parte hartzen dute erabakiak hartu eta esku hartze hau bideratzerako garaian.

3.2. Egituraren kudeaketa

Taldearen barruan hiru azpitalde edo lantalde daude: errealitatearen berri ematen duena eta errealitate horrekin kontaktua mantentzen duena, asanbladako kideak (hauek proposatutako

errealitatea aztertu eta erabakiak hartuko dituzte aurrerago egin beharko diren pausuen) eta azkenik errealitate konkretuetan eragiteko baliabideak lortzeko egingo diren ekintza ezberdinetako parte hartzaileak. Talde hauek ordea ez dira fisikoak, hau da, kide bat talde askotako partaide izango da agian edo talde oso batek bi funtzio beteko ditu egoera konkretu baten. Bestalde koordinazioa erabatekoa da beti talde hauen artean eta funtzionamendua hobetzeko ardua banaketa bat burutzen da eraginkorragoa izateko. Aginterik ez dago, lehen esan bezala azpitalde ezberdinak daude eta bakoitzak bere zeregina gauzatuko du, harreman eta egitura horizontala izanik.

3.3. Ikasketa kudeaketa

Taldean konfiantzazko giroa sortzen saiatzen dira bileretan gainontzekoen hitza entzunaz eta gatazkatsuak diren puntuak eztabaidatzeko markoak sortuz. Horrenbestez errespetuzko jarrera horrekin klima egoki bat sortzea lortzen dela esango genuke.

Bestalde elkarteko partaideak printzipio komun batzuen baitan batzen direla kontuan hartuta eta hauei lotutako helburuak lortzean oinarritzen direla, taldeko norbanakoak asebetetze maila altu bat izan ohi dute, betiere helburuak ez lortzeak besteak beste izan ditzakeen alde txarrekin. Gainera ezintasun horiek konpontzeko espazioak sortzen direla kontuan hartuta, akatsen aurrean esku hartzeko aukera dute partaideek. Gainera, zeharka ere klima egokia dagoela esan genezake parte hartzea erabatekoa delako eta ez delako abstentzio edo kexarik egoten orokorrean.

Jakintzari dagokionez, kolektibizatzeko joera nabarmena dago taldea. elkartasuna bitarteko gisa erabiliz helburutara heltzeko interesgarria izan daiteken informazio oro partekatzen da era desinteresatu batean, ulertuz honen bitartez ahalduntze pertsonal eta kolektibo bat ematen dela, taldea bera indartuz.

Kolektibizatzen prozesu honen planifikazioa helburuen zehaztearekin batera sortzen da. Behar teorikoak identifikatzen dira eta horren ondorioz beharko den formakuntza. Bestalde koiunturari erantzuteko formakuntza edo jakintzaren partekatzeak ere burutzen dituzte.

Kulturaren kudeaketari dagokionez, elkarteak oinarri batzuen baitan egiten du lan, eta oinarri horiek kultur aniztasuna eta kultura ezberdinekiko jarrera aktiboa inplikatzeko duen heinean,

alderdi hau landua dutela baieztatzen dugu. Honen informazioa ere era zuzenean kudeatzen da asanbladaren bidez.

Azkenik, taldeari kontrajarriak diren egoerak kudeatzeko tresnak aipatzea gustatuko litzaiguke. Lehenago aipatu dugun bezala ideia oro eztabaidatzeko prestutasuna duen taldea baita “Anelkar” eta horretarako marko ezberdinak sortzen ditu. Jarrera horiek aztertu eta eztabaidatzeko eremuak sortzen dituzte hauek argitu eta korapiloak askatu ahal izateko talde bezala.

BIBLIOGRAFIA

- Anelkarreko webgune ofiziala (2018). Helbidea:
<http://blogak.goiena.eus/anelkar/guri-buruz/>